



NOR DA NOR?

Materiala: Pertsonaien fitxak.

Jokatzeke era:

Ikastaldea lau zapabost taldetan antolatu. Lehenengo taldeko jokalaria bat zutitzen da. Irakasleak pertsonaia baten fitxa erakusten dio eta minutu batean, izen propioak aipatu barik (pertsonaia, herria, marka, telebista programa eta abarren izenak) adierazi behar dio bere taldeari. Taldekoek jokalaria adierazitakoa igartzen saiatu behar dute eta, horretarako, galdetzerakoan izen propioak erabil ditzakete. Asmatzen badute, puntu bi eta taldeko hurrengoa zutitzen da; asmatzen ez badute, aukera ematen zaie beste taldeei erantzuna emateko; hauek ahopeka gidariari esango diote. Asmatzen dutenentzat puntu bat eta asmatzen ez dutenek txanda bat galtzen dute. Deskribapena egiterakoan, izen propioak edo gaztelaniazko hiru hitz erabiliz gero, txanda hurrengo taldeari pasatzen zaio.

Prestaturiko fitxez aparte, beste fitxa batzuk zuriz izango ditugu. Jokoaren erdian talde bakoitzari fitxa bi banatuko dizkiogu haien ikastetxe, herri edo koadrilako pertsonaien izenak ipin ditzaten. Fitxa hori besteekin nahastuko dugu.

